

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

MUGIKORTASUNAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN SAILA

Administrazio Zerbitzua

“Gasteizen Tuvisako kotxetegiak, lantegiak eta eraikin administratiboa eraikitzeko proiektua” eta ingurumen-eraginari buruzko azterlana jendaurrean jartzea

2018ko martxoaren 23an, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena sinatu zen, Gasteiz hirian autobus elektriko adimentsua ezartzeko.

2018ko maiatzaren 10ean, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak eta Gasteizko Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten, Gasteiz hirian autobus elektriko adimentsua ezartzeko sinatutakoaren osagarria, autobus elektriko adimentsuen kargatze geldoko sistema hartuko duten kotxetegiak eraikuntza proiektua egiteko.

Legearen arabera, ingurumen-eraginaren ebaluazio arruntaren prozedurari jarraitu behar dio proiektuak; Toki Jaurbidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 127. artikulua ezartzen duenaren arabera, berriz, Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi behar du.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 33. artikulua eta hurrengoek ezartzen dutenez, proiektua baimentzeko prozedura substantiboaren barruan informazio publikoaren izapideak egingo dira, baita eragindako administrazio publikoei eta interesdunei egin beharreko kontsultak ere.

Horrenbestez, “Gasteizen Tuvisako kotxetegiak, lantegiak eta eraikin administratiboa eraikitzeko proiektua” eta ingurumen-eraginari buruzko azterlana jendaurrean jartzea erabaki da, hogeita hamar egun balioduneko epean, alde aurretik ALHAOn eta Udalaren egoitza elektronikoa iragarrita.

Erabaki honen kontra ez dago errekurtsorik aurkezterik, izapide-egintza baita.

Dosierra aipatutako epean kontsultatu ahalko da, San Martineko bulego teknikoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25).

Beraz, jendaurrean jartzen da, arestian aipatutako legedian xedatutakoari jarraiki.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 12an

Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren administrazio burua
JAVIER LARRIETA CENDEGUI